



«Hitzetatik ekintzetarako jauzia» aldarrikatu dute 22. KORRIKAREN aurkezpen sozialean

*Azarotik ari dira 22. KORRIKA aurkezten, eta dagoeneko jakitera eman dituzte lasterketaren xehetasun guztiak. Gaur zortzi abiatuko da KORRIKA Amurriotik, eta martxoaren 31tik apirilaren 10era lekukoa eskuz esku ibiliko da, euskararen aldarria Euskal Herriko bazter guztietara zabaltzeko. Mugarria ospatu eta egitasmoari ongi etorria emateko, **aurkezpen soziala izan da gaur Bilbon.***

Ekitaldia BBK aretoan izan da, 19:30ean. Bertan izan dira **Asier Amondo KORRIKA arduraduna**, eta **Aitziber Balantzategi, AEKren eleduna**, AEKren Artezkaritza Kontseiluko kideek lagunduta. **Alizia Iribarren AEKren koordinatzaileak** ere hartu du parte ekitaldian. Eurekin batera, **100 gonbidatutik** gora izan dira: euskalgintzakoak, hedabideetakoak, alderdi politikoetako ordezkariak, sindikalgintzakoak, eragile sozialak eta hamarnaka lagun gehiago.

Ekitaldi xumea izan da. Oholtzan, Aitziber Balantzategik aipatu duenez, «22. KORRIKAREN leloari jarraiki, zorionez, denok barneratzen ari gara hitzaren eta ekimenaren urtea izango dela». KORRIKAREN eledunak aipatu du «KORRIKAREN ingurumarian bertan hasita, abian jarri dugu doako ezagutzaren unibertsalizazioaren beharra jorratuko duen dinamika berria ere. «HITZEKIN. Denok euskara doan» izenekoak». Asier Amondo KORRIKA arduradunak hurrengoak aipatu du: «KORRIKAREN ordua da, Euskal Herri osotik, gelditu gabe, Korrika egingo dugu Donostiara iritsi gabe. Azken egunean ere ikusi nahi zaituztegu. Apurtu agenda guztiak eta martxoaren 31tik apirilaren 10era korrikara!».

Amaia Ruiz de Galarreta aktorea aritu da aurkezpen lanetan. Ikasle batek eta irakasle batek osatutako bikotea AEKren bizidekarrean aritu da KORRIKAK beste edizioetan ekarri dizkien bizipen eta sentimenduen haritik tiraka, haiek direlako AEKren hauspoa. 22. edizioko spota eta bideoklipa ere ikusteko aukera egon da.

korrika.eus



ARABA

Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparralde@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus